

“Noizbait helduko da zu Frantzia, zu Errusia, zu Italia, Zu Ingalaterra, zu Alemania, zuek denok, kontinenteko nazioak, zeuen nolakotasun bereziak eta zuen bereiztasun loriosa galde gabetarik, batasun jasoagoan estuki urtu eta europarren haurridetza osatuko duzuen eguna, Normandia, Bretaina, Burgoina, Lorena, Alsatzia, gure probintziak oro, Frantzian urtu diren bezala.

Noizbait helduko da bataila-zelai bakarrak merkataritzarako zabaltzen diren azokak eta ideietarako zabaltzen diren espirituak izanen diren eguna.

Noizbait helduko da bozek, herrien bozkatze unibertsalak, eta Ingalaterran Parlamentuak, Alemanian Dietak, Frantzian Legebiltzarrak bezala Europan senatu subirano handi baten arbitraia agurgarriak balak eta bonbak baztertuko dituzten eguna!”

Bakearen Batzarra Parisen, 1849, Musteko sarrera, 1849ko abuztuaren 21ean, Esanak eta Eginak, I, Exilioaren aurretik.

Nazioanalismoak atzean utzi behar zirenen eta herrien etorkizuna Europari lotua zegoenaren konbentzimendua zuen Victor Hugok. Ideia hau ez da, dudarik gabe, gardena, eta Amerikako Estatu Batuen eremuan oinarritua dirudi, existitzen diren nazionalitateei uzten dien lekua oso garbi finkatu gabe.


1870eko uztailaren 14ean Hugok, “Europako Estatu Batuen Haritza bezala bataiatzen dudana haritza sortuko duen hazia” erein zuen bere Hauteville House-ko lorategian. Orduan, 1857ko uztailaren 21ean idatzitako olerki bati gezurrezko data ematen dio, izenbururik gabe. Ondoren, olerki hau “Espirituaren lau haize”en parte izatera pasa zen, eta zuhaitzak aurrera egin zuen.

1853

Victor Hugo 1853-1855 inguruan, Charles Hugok egina, MVH©Jean Vigne eta PMVP.



Daumier, dirudienez hitzaldia irakurri ez zuena, edo behintzat bere benetazko originaltasuna ulertu ez zuena.



Victor Hugok, bere hitzaldian, gloria militarren hutsaltasuna azaltzen du hiru puntutan eta erramuzko koroa aurre-eragin berri bat bermatzen duen arrosa koroa bategatik onuragarriki ordezkatu izan daitekeela frogatzen du. Honoré Daumier, Bake Kongresuaren Oroitzapenak, 1 zbkia., litografia, Le Charivari. 1849ko irailak 6. BNF © Jean Vigne

## EUROPA



Europako mapa 1820. urte inguruan ©Jean Vigne



Europako mapa 1920 eta 1937 bitartean. ©Jean Vigne